BIDEO KAMERA ETA ARGIZTATZEKO TRESNERIA

ARGIZTAPENAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK



7

ARGIZTAPENAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK

SARRERA

Aurrerapen teknologikoei eta diseinuari esker, gaurko bideo-kamera gehienekin emaitza onak lor daitezke, egoera zailetan filmatu arren. Antzinako eskuzko kontrolak kontrol automatikoez ordezkatu dira. Horren guztiaren aurrean, ez da harritzekoa geure buruei zera galdetzea:

zergatik ikasi bideo-kamera eta argiak erabiltzeko teknika?

Hona hemen lau erantzun:

a) Kamera erabiltzen eta gustuko irudiak egiteko argiak kokatzen oinarrizko arauak ikasiz eta, ikasi ondoren, praktikatuz soilik lortzen delako.

b) Ikusleek erabili dugun bideo-kamerak jaso duena, nola jaso duen eta jasotakoa nola erakusten ari garen begiratzen dutelako.

c) Kontrol automatikoak munduko onenak izan arren, ezin dutelako guk nahi ditugun sentsazioak transmititu.

d) Ikus-entzunezko orotan talde-lanean aritzen delako; eta, horretarako, nahitaezkoa delako koordinazioa; eta, zinez uste dugulako, teknologia dela gizakiaren zerbitzura egon behar duena eta ez alderantziz.

Bideo-serie honetan ez gara tresna zehatz batzuez mintzatuko; gure xedea hezkuntza alorrean emaitza profesionalak lortzeko beharrezko diren oinarriak eta prozedurak sakonki aztertzea da.

Hizkuntza arrunt xume batez produkzio-, argiztatze- eta argazki-taldekoak non aritzen diren azaltzen da. Horrezaz gain, kasu zehatz bakoitzean erabili behar den tresneria erabakitzeko behar diren jakingarri guztiak erakusten dira.

KAPITULUEN EGITURA

Kapitulu guztiek hiru zati dituzte:

1.- Lehenengoan, bideoan zehar ikusi eta ikasiko ditugun kontzeptuak aurkezten dira. Zati honen helburua ondoren garatuko den gaiari sarrera egitea da, bai irakaslea, bai ikaslea prest jartzeko.

2.- Bigarrenean, kapituluari dagozkion edukiak garatzen dira. Berau dugu zatirik luzeena eta bertan kameraren eta argien alderdi guztiak aztertzen dira.

3.- Hirugarrenari lantegia deitu diogu. Zati honetan, esperientzia batzuen bidez, bideoan zehar ikusi eta ikasi ditugun kontzeptuak berrikusiko ditugu. Lantegian proposatzen diren ariketa praktikoak direla medio ikasleak bideoan ikusitakoa sakontzeko aukera izango du.

HELBURU OROKORRAK

Xedea irudiaren munduko lexikoa ulertzea da; eta, lexiko hori erabiliz, ahozko adierazpenak egitea, jarduera teoriko bat praktikara eramateko garaian zehatza izateak duen garrantzia ezagutuz.

Norberaren eta besteen ikus-entzunezko produktuak aztertzea eta interpretatzea, elementuak, egiturazko erlazioak eta komunikazio-funtzionamendua bereiziz, ikuspegi tekniko, artistiko, teoriko eta jarrerazko batetik.

Ikus-entzunezko lengoaiak aztertzea eta haien erabileran sakontzea, praktikan norberaren ezagutzak eta gaitasunak integratzen laguntzeko, adierazpen eta komunikazio modu pertsonala finkatzearren.

Gizarte-komunikazioetan eta arte- eta kultura-adierazpenetan ikus-entzunezko komunikabideek duten funtzionamendua aztertzea, aldi berean presio instituzionalak edo ekonomikoak ikus-entzunezko komunikazioetan duen eragina balioetsiz.

Telekomunikazioen eta informazioaren teknologia berrien arteko elkartzeak dakartzan ikus-entzunezko joera eta prozedura berriak eta kultura-kontsumoaren ohituretan duten eragina ezagutzea eta balioestea.

Taldeko komunikazio-esperientziak lantzea, elkartasunezko jarrera aktiboa eta parte hartzailea erakutsiz, zeregin koordinatuetan lagunduz eta jarrera baztertzaileak auzitan jarriz.

EDUKIAK

3. Multzoa. Irudi mugikorra

A) Kontzeptuzko edukiak:

Espazio-irudikapena eta «eszenaratzea» zinemako eta telebistako narrazioan.

Koadroa egiterakoan antzeman daitezkeen elementu plastikoen forma eta konposizioa: argiztapena, kolorea, eszenatokia, karakterizazioa, planoaren tamaina eta eskala.

Dokumentalari, albistegiari, publizitateari, eta zinemari dagozkien eszenaratzeen arteko aldea.

Denboraren eta mugimenduaren irudikapena muntaiaren eta edizioaren bitartez: planoa, eszena eta sekuentzia.

Komunikabide berrien irudia: errealitate birtuala, simulazioa eta infografia. Narrazioa teknologia berrietan: irakurketatik «nabigaziora», transmisiotik elkarreraginera.

B) Prozedurazko edukiak:

Ikus-entzunezko produkzioaren teknikak eta prozesuak erabiltzea.

Ikus-entzunezko proiektu bat egitea, komunikazio-helburuak, banaketa- eta produkzio-aukerak kontuan hartuta.

Aurreprodukzioa: sinopsia eta literatur gidoiaren eta gidoi teknikoaren elaborazioa: plangintza, gidoiaren egitura eta aurkezpen-formatuak. Gidoia eta taldeko lana.

Produkzio-prozesua: ikus-entzunezko dokumentu labur bat egitea (dokumentala, informaziozkoa, publizitatezkoa...).

Ikus-entzunezko produkzioaren elementuak ezagutu eta erabiltzea: kamera, argiztapena, soinu-hartzeak, eszenatokia, karakterizazioak...

C) Jarrerazko edukiak:

Eszenaratzea errealitatea berreratzeko prozedura gisa balioestea, non beste balizko batzuen artean errealitate-proiektu bat zirriborratzen den eta egile, produktore, telebista-kate, eta abarren asmoa erakusten den.

Ikus-entzunezko errealizazio- eta adierazpen-estiloak aintzakotzat hartzea eta haien komunikazio-interesa balioestea.

Talde-zereginetan aktiboki parte hartzea, elkarlanerako eta besteen proposamenak onartzeko jarreraz.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Irudi berari buruzko pertzepzio aniztasunaz ohartzea, eta pertzepzioen arteko aldea azaltzea, egoera, testuinguru eta horrelako arrazoiak erabiliz.

Irizpide horren bitartez, ikusmenezko pertzepzioa antolatzen duten prozedurei, prozesuei eta esku hartzen duten jarduerei buruz duten ezagutza balioetsi nahi da, eta inplikatutako faktore psikologiko eta teknologikoen eta gaitasunen arabera egiten den interpretazioa.

Nahi dituen baliabide, teknika eta prozedura erabiliz, gai berberaren gaineko produkzio-prozesuak planifikatzea eta garatzea, komunikazioaren helburuak lortzeko erabili diren bide eta tekniken egokitasuna balioetsiz.

Irizpidearen bitartez, gai berberari aplikatutako ikus-entzunezko produkzio-prozesuak planifikatzeko eta burutzeko ikasleak duen gaitasuna da ebaluatu nahi duguna. Horretarako, ikasitako kontzeptuak eta prozedurak erabiltzen dituen, batez ere produkzioaren faseen antolamenduarekin eta plangintzarekin zerikusia dutenak, eta aurrez finkatutako helburuak lortzeko aukeratu dituen baliabideen eta produkzio-tekniken egokitasuna balioetsiko ditugu.

Ikus-entzunezko narrazioaren adierazpen-materialen (irudia, soinua, notazio- grafikoak) erabilera eta balioari buruzko eta komunikazio-helburu jakinen arabera duten funtzionaltasunari buruzko ezagutzak aplikatzea.

Irizpidearen bitartez ikasleak ikus-entzunezko lengoaien bidez errealitatea irudikatzeko eta interpretatzeko gai diren ebaluatu nahi da. Baita, irudiaren eta soinuaren baliabide plastikoak manipulatuz, adierazteko duen gaitasuna ere; irudikapen horien komunikazio-eraginkortasuna balioetsita.

Film-sekuentzia batzuetan kameraren lana (optikoa, planoaren konposizioa, kameraren mugimendua, ekintzaren denbora-tratamendua) eta planoen arteko trantsizioak deskribatzea.

Irizpide horren bitartez, ikasleak ikus-entzunezkoen bi arlo nagusiak kontuan hartu dituen ebaluatu nahi da: batetik, plangintza egiterakoan, espazioaren eta denboraren tratamendua eta kameraren mugimenduen balioa (panoramika, *travellinga*, zooma, garabia); eta, bestetik, muntaia egiterakoan, denboran eta adierazpenean eragina duten film estrategiak (kateatua, iluntze-iraungipena, gortinak, geldotzeak, *flash backa*).

NOIZ ETA NOLA ERABILI MATERIAL HAU

BIDEO KAMERA ETA ARGIZTATZEKO TRESNERIA bideo-seriea batxilergoan diharduten ikasleentzat egindako materiala da. Emaitzarik onenak lortzeko, bideo-kamera eta argiztatzeko tresnak nola erabili behar diren erakustea da bere xedea.

BIDEO KAMERA ETA ARGIZTATZEKO TRESNERIA bideo-seriean jakitera ematen diren ezagutza teknikoak oinarrizkoak dira. Hain juxtu, ikasleek inguruan duten mundua euren ikuspegi propiotik filmatzeko jakin behar dituztenak.

Seriea osatzen duten bideoak ordena natural batean adierazita daude. Horregatik, bideoak lehenengotik hamaikagarrenera ordenan lantzea proposatzen da.

Bideo bakoitza ataltxotan sailkaturik dago kontzeptuak argiago adierazteko.

Ariketa bakoitza irudiz eta ahotsez azalduko da.

Irakaslearen presentzia ezinbestekoa da bideo-emanaldiak irauten duen bitartean, ikasleen zalantzak unean bertan argitzea garrantzi handikoa baita.

LANTEGIA ATALA

Ariketak bideoaren hirugarren atalean erakusten dira. Atalari lantegia deitu diogu eta bere xedea irakasleari lana erraztea da. Erakusten diren ariketa guztiak kameraren aurrean egiten dira, eta ikasleek klasean egingo dituzten ariketen gidari izan nahi dute. Ariketek bideoan azaldutako teoriekin lotura estua dute eta era mailakatuan ageri dira, errazenetik zailenera. Lantegia ataleko ariketen xede nagusia ikasleriari ariketa praktikoak egiten laguntzea da; alegia, kamera eta argiak erabiltzen erakustea.

HIZTEGIA

Hiztegiaren erabilera onerako klase-hasieran ikasleei banatzea eta, hitzak banan-banan hartuta, haien esanahiari buruz mintzatzea proposatzen da.

Gida didaktikoaren barruan aurkituko duzuen hiztegi teknikoa bai bideoan teoria agertzerakoan, bai inguru profesionalean erabiltzen diren oinarrizko hitzez osatua dago.

LIBURUAK

Proposatzen diren liburuek zerikusi estua daukate kameraren eta argien munduko gaiekin eta ikasgaiekin, bai alderdi artistikoa jorratu nahi duenak erabiltzeko, bai alderdi teknikoa jorratu nahi duenak erabiltzeko.
Errealizazioa deitu dugun atalean agertzen diren liburuak sakonagoak dira, eta gaian gehiago sakondu nahi duten ikasle eta irakasleei zuzenduak daude.

BIDEO KAMERA ETA ARGIZTATZEKO TRESNERIA

7. KAPITULUA

ARGIZTAPENAREN OINARRZIKO PRINTZIPIOAK

Sarrerako hitzak

Argi artifiziala kontrolatzeko teknikak unibertsalak dira. Barrualdeak argiz hornitzeko, ezagutza tekniko horietan oinarritzen gara; gero, daukagun denboraren eta irudimenaren arabera, modu batera edo beste batera antolatuko dugu argiztapena. Kapitulu honetan aipatutako teknika horiek aztertuko ditugu, urratsez urrats.
Lantegia atalean, argiztapen-plangintza bat nola egin ikasiko dugu.

Atalak

-Argiztapena eta ikusmena
-Argiztapenaren oinarriak
-Kontraste-erlazioa
-Argiztapena praktikan
-Eszenen girotzea
-Nola argiztatu dekoratu bat

-LANTEGIA ATALA: argiztatze-plangintza

NOLA ARGIZTATU DEKORATU BAT

Argiztatzeko tresneria kokatzen hasi aurretik, dekoratuko elementuek beren lekuetan egon behar dute. Zuzendariak prestatutako gidoi teknikoa eta argiztatze-plangintza oinarrizkoak dira, fokuak eta argiztatzeko beste tresnak non kokatu eta non entxufatu jakiteko.

Mahukak hedatu eta banatu ondoren, argi nagusia kokatuko dugu, eta, hura piztuta dagoelarik, eszenako gune garrantzitsuenetako diafragma-balioak koadernoan jasoko ditugu.

Ondoren, argi betegarria kokatuko dugu. Argi betegarria eta nagusia piztuta daudela, berriro egiaztatuko ditugu gune garrantzitsuenetako diafragma-balioak.

Jarraian, argi nagusia eta betegarria amatatu eta atzeko argia kokatuko dugu. Atzeko argia piztuta daukagularik, bideo-kamera bera eta monitorea erabiliz, enkoadratutako irudian argi haren islarik daukagun ala ez ikusiko dugu. Hori egiaztatuta, monitorean, hondoa aski aldenduta dagoen ala ez ikusiko dugu; aski aldenduta ez badago, hondoko argi bat prestatuko dugu.

Bukatzeko, azken ukituak emango dizkiogu argiztapen orokorrari; eta, gune batzuk nabarmendu nahi izanez gero, beste foku batzuk jarriko ditugu. Guneren bat itzaletan utzi nahi badugu, fokuen hegaltxoak batuko ditugu edo banderak ipiniko.

Eszena bat argiztatzeko erabili ditugun argi-iturriak kolore-tenperatura ezberdinekoak badira, iragazkiak ezarriz berdin ditzakegu. Horretarako, argi-iturrietako bat erreferentziatzat hartuta gainerakoak iragaziko ditugu. Eszena bat argi naturalez girotzeko, azkarragoa eta merkeagoa da bi fokuren argia gelatina urdinez iragaztea, leiho handi bat gelatina laranjaz estaltzea baino.



1 Argi nagusia
2 Argi betegarria
3 Atzeko argia
4 Hondoko argia

LANTEGIA ATALA: Argiztatze-plangintza

Argiztatze-plangintza bat egiten hasi aurretik, dekoratuaren eta bertan garatuko den ekintza dramatikoaren gaineko informazio guztia eskura izatea komeni da: zer motatako argiak diren dekoratukoak bertakoak, bertan dauden objektuen eta haien azaleraren ezaugarriak eta orientazioa, non eta nola jarriko diren pertsonaiak eta nondik nora mugituko diren pertsonaia horiek.
Hori guztia jakin eta gero, xehetasun guztiak kontuan hartuta, zer-nolako tresnak erabiliko ditugun eta zenbat eta non kokatuko ditugun aztertuko dugu. Hau da, argiztatze-plangintza zehaztuko dugu. Metodo gisa, edozein argiztatze-plangintza egiteko, galdeketa bat proposatzen dizuet.

1. Eszena kanpoaldean ala barrualdean grabatuko da?

2. Demagun kanpoaldean grabatu behar dugula.

Ba al da korronte-hartunerik gertu? Erabil dezakegu?
Ongi ekipatutako instalazio elektrikoa al da?
Ba al du segurtasun-sistemarik?

Non kokatuko dugu sorgailua? Dekoratutik zenbateko distantziara?

Zer eguraldi iragarri dute grabazio-egunerako?
Zein da dekoratuaren orientazioa?
Noiz ematen dio eguzkiak?

Gidoiaren arabera, zer urtarotan garatzen da grabatuko dugun ekintza?

Gauez ala egunez grabatuko dugu?

Argiztapen publikoaz balia al gaitezke?

3. Demagun barrualdean grabatu behar dugula.

Dekoratura iristen den argindarrak zenbateko potentzia dauka?
Zer tentsiotakoa da?

Non kokatuko dugu sorgailua? Dekoratutik zenbateko distantziara?

Dekoratuak ba al du leihorik?
Zer orientazio daukate?

Zer motatako argiak ditu dekoratuak?
Erabiliko al ditugu?
Zer koloretakoak dira paretak eta sabaia?

Gidoiaren arabera, zer urtarotan garatzen da grabatuko dugun ekintza?

Gauez ala egunez grabatuko dugu?

4. Galdeketa orokorra

Zein dira dekoratuaren neurriak?

Zenbat eszena grabatuko dira bertan?

Zein dira batzuen eta besteen arteko aldeak?

Gidoiaren arabera, zer ordutan garatzen da grabatuko dugun ekintza?

Proiektuaren arabera, zer motatako argiztapena eskatzen du toki horrek?

Zenbat pertsonaiak hartzen dute parte eszenan?

Nola eta nondik ibiliko dira pertsonaiak dekoratu barruan?

Non kokatuko da bideo-kamera?

Ba al dago argiztapen-aldaketarik plangintzako planoetan?

Nola jasoko dugu soinua?

Egin behar al dugu efektu berezirik argiekin?

Zenbat denbora daukagu argiak ipintzeko?

Zer bideo-kamera erabiliko dugu grabatzeko?

Argiztapen-plangintza egiteko dekoratuaren planoa da abiapuntua. Bertan marrazten dira dekoratuko elementu garrantzitsuenak; bertan adierazten dira, zuzendariaren gidoi teknikoa oinarritzat hartuta, bideo-kameraren kokaguneak eta aktoreen ibilbideak; argiztatzeko erabiliko diren tresnak ere bertan zehazten dira, dekoratuaren planoan. Argiztatzeko tresnak adierazteko honako sinbolo hauek erabiltzen dira:

Lanparak era honetan adierazten dira:

goritasun-lanpara

argi nagusia

argi leuna

ziklorama-argia

fluoreszente-sortak.

Bai barrualdeko dekoratuetan, bai kanpoaldekoetan, eguzkiak eragin zuzena badu, adierazi egin behar da. Kanpoaldeko dekoratua bada, grabazio-garaian eguzkia non izango den eta nondik norako bidea egingo duen adierazi behar da. Barrualdeko dekoratua bada, eguzkiaren argi-izpiak dekoratura nola sartuko diren adierazi behar da.

HIZTEGIA

Hondoko argia: dekoratuaren atzeko aldea argiztatzeko erabiltzen dena.

Argi nagusia: dekoratuko gainerako argiak menderatzen dituen argia. Bera da argi-iturri indartsuena eta lehenbizikoz ipintzen dena. Bideo-kameraren ardatzarekin 40° – 50°-ko angelua osatzen duela kokatzen da eta hura baino altuago. Argi nagusiari esker antzematen dira formak, elementuen kokapena eta haien ehundurak.

Argi betegarria: argi nagusiak eragindako itzalak argiztatzeko erabiltzen dena, irudi bateko alderdi argitsuenen eta ilunenen arteko kontrastea oso bortitza izan ez dadin. Argi betegarriak itzalak argitu egin behar ditu, inoiz ez ezabatu eta itzal berriak eratu. Horregatik, argi betegarriak argi leun eta barreiatua izan behar du; ez du inolaz ere eragin behar argi nagusiak agindutako diafragmaren irekiduran.

Atzeko argia: pertsonaia edo pertsonaiak nabarmentzeko, hondotik aldentzeko eta bolumena emateko erabiltzen dena. Atzeko argiari esker, irudiak sakonera-sentsazioa irabazten du. Atzeko argiari aldentzeko argia ere deitzen zaio.

Kontraste-erlazioa: dekoratu bateko alderdi argitsuenen eta ilunenen artean dagokeen erlazioa adierazten digun zenbakizko balioa da. Kontraste-erlazioa, argiztapen-kontrastea ere deitua, kalkulatzeko argi nagusiaren eta osagarriaren batura zati argi osagarria eragiketa egiten da.

LIBURUAK

Bideo-kamera eta argiztatzeko tresneria

MILERSON, Gerald: *Cómo utilizar la cámara de video*, Gedisa, Bartzelona,1998

SWUAISON, G eta LYVER, Des: *La iluminación en video, Principios básicos.* Gedisa, Bartzelona,1997

MILERSON, Gerald: *Iluminación para televisión y cine,* IORTV, Madril, 1996

ARONOVICH, R.: *Exponer una historia. La fotografía cinematográfica,* Gedisa, Bartzelona, 1997

Errealizazioa

CHESHIRE, David: *Manual de cinematografía*, Blume, Madril, 1981

FELDMAN, Simon: *La composición de la imagen en movimiento,* Gedisa, Bartzelona, 1995

FELDMAN, Simon: *La realización cinematográfica,* Gedisa, Bartzelona, 1997

Internet

www.imagendv.com

www.quesabesde.com

SERIEA OSATZEN DUTEN KAPITULUAK

1.- GRABATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA

2.- BIDEO KAMERAREN OBJEKTIBOA

3.- MUGIMENDUA IRUDIAN

4.- ARGIA

5.- ARGIZTATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA

6.- ARGIZTATZEKO TRESNA ETA OSAGARRIAK

7.- ARGIZTAPENAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK

8.- NOLA ARGIZTATU KANPOALDEAN

9.- ARGIZTATZEKO TEKNIKA BEREZIAK

10.- PRODUKZIOA ETA ENTSEGUAK

11.- GRABATZEN

Ekoizlea:

iadi

LG.- VI-28 / 06

Banatzailea:

artez
IKUS-ENTZUNEZKOAK

Getaria, 18-behea, 01010-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608
artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

Ikasmaterial honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egokitasun-aitormena du.
2006/05/02